



MENDE BAT 1850 – 1950/60

HERNANIREN HISTORIAN



EGILEA

JON OÑATE LIZARRALDE

ITZULTZAILEA

GARLO

Itzulpen Zerbitzua

ANTOLATZAILEA

HERNANIKO SAN JOAN KONPARTSA

2019ko Ekainaren 27a

EZKER ONA

JESUS GARCIA, bere laguntzarengatik
KUTXATEKA, bere argazkiak erabiltzea
baimentzeagatik

ITURRIAK

HERNANIKO UDAL ARTXIBOA
(JESUS MARI GOMEZ)

HERNANI 1962
(Estudio sociológico de un pueblo industrial guipuzcoano)
(I. LARRANAGA y R. IRURETAGOYENA)

HERNANI entre DOS GUERRAS (1872-1936)
Medio Siglo de Vida de Hernani
(LUIS BLAS ZULETA)

HERNANI ETA HERNANIARRAK (Mendeetako zertzeladak)
(ANTXON AGUIRRE SORONDO)

QUE PEDAZO DE CASA TURIASONENSE
(LAPUENTE SAN PEDRO, R. Tarazona. Instantáneas del
pasado. C.E.T. Institución Fernando el Católico, Tarazona,
2008.9)

ALGUNAS CONSIDERACIONES SOBRE LOS COMIENZOS DE LA
INDUSTRIA CERILLERA EN ESPAÑA: EL CASO DE ALCOY EN
EL SIGLO XIX
(LLUIS GARRIGOS OLTRA; GEORGINA BLANES NADAL;
CARLOS MILLAN VERDU - Escola Politècnica Superior
d'Alcoi. Universitat Politècnica de Valencia; RAFAEL
SEBASTIA ALCARAZ - Universitat d'Alacant -

ALGUNAS INDUSTRIAS DE HERNANI
(URUMEA ARNASTU)

LA INDUSTRIA CERILLERA
(AGUEDA GIL LOPEZ / ELENA SAN ROMAN)
-Univesidad Complutense de Madrid-

LA HIDALGUÍA UNIVERSAL DEL PAÍS VASCO
(JOSE RAMON DIAZ DE DURANA -Historiador Profesor de
UPV-EHU)

Hernanik 1850etik 1950/1960ra izandako bilakaera ikusteko, hiru arlo aztertuko ditugu jarraian:

DEMOGRAFIA NEKAZARITZA ETA ABELTZAINITZA INDUSTRIA

HERNANIKO DEMOGRAFIAREN BILAKAERA

Hernaniko biztanleriari buruz daukagun lehen informazioa XVI. mendean Errege Inprentan argitaratu zen erroldakoa da. Bertan esaten zenaren arabera, 27 «su» zeuden Hernanin, «kapareak» alde batera utzita.

«Su» edo sutondoak etxeak ziren. Su horietako bakoitza 5,5 herritar «*petxero*» edo plebeioren baliokidea zen, eta petxeroak bost biztanleren baliokideak ziren. Hortaz, 740 biztanle petxero inguru zeuden Hernanin; biztanleriaren % 56 inguru, beraz. Gainerako % 44ak, 585 herritar, kapareak izango ziren. Hortaz, Hernanik 1.325 biztanle inguru izango zituen 1550. urtean.

(Azterlan honen helburua ez da plebeioei eta kapareei buruz aritzea. Literatura eta eztabaida ugari dago gai horren inguruan. Dena den, esan dezagun Bizkaian, 1526ko Foru Berriaren arabera, kapare zirela lurralde horretako pertsona natural guztiak. Beste horrenbeste gertatu zen Gipuzkoako pertsona naturalekin, 1610etik aurrera).

Nolanahi ere, datu demografikoak ez dira oro har oso sinesgarriak.

ERROLDA (URTEA)	BIZTANLEAK
1857	3.641
1860	3.558
1877	3.539
1887	3.531
1897	3.641
1900	3.672
1910	4.326
1920	5.405
1930	6.282
1940	7.093
1950	8.577
1960	13.080

Hernaniko demografiaren bilakaerari dago-kionez, askoz xehetasun gehiago ematen dizkigute 1857tik aurrera egiten hasi ziren errolda ofizialek.

Ikus dezakezuen bezala, biztanleen kopuruak hainbat gorabehera izan ditu denboran zehar. Bost aldi hauek bereiz genitzake:

1857tik 1900era

Biztanleriak ez zuen gora egin. Besteak beste, tartean Gerra Karlista egon zelako (1869-1876), 1860ko erroldan Donostiari zegozkion baserri batzuetako jendea sartu zelako, eta 1887ko erroldan 300 bat eskale jaso zirelako, Kubako gerraren ondorioz soldaduak han-he-menka ibili zirelako, eta abar.

1900etik 1920ra

Hazkunde apala izan zuen biztanleriak 1900

eta 1910 bitartean, eta handixeagoa 1910etik 1920ra.

1920tik 1940ra

Etengabe igotzen joan zen biztanleen kopurua, baina poliki, batez ere bi gertaera garrantzitsuren eraginez: 30eko hamarkadako krisi ekonomikoa, herrialde guztietan izan baitzuen eragina, eta 36ko Gerra.

1940tik 1950era

Guztira 1.484 biztanle irabazi zituen udalerrriak; % 21eko hazkundera izan zuen, beraz.

1950etik 1960ra

Hamarkada horren lehen lau urteetan, aurreko hamarkadan bezalakoa izan zen hazkundera. Zehazki, 695 biztanle eskuratu zituen.

Hazkunde benetan handia 1954tik aurrera gertatu zen: sei urteko epean, % 41 handitu zen Hernaniko biztanleen kopurua. Gorakada hori azaltzeko, ez da nahikoa biztanleriaren hazkunde naturalari begiratzea; beste faktore garrantzitsu bat ere egon zen tartean: hain zuzen ere, oro har gure lurraldeetara eta zehazki Hernanira iritsi zen immigrazioa. Ondo ikus daiteke hori Parrokiako Bataioen eta Heriotzen Erregistrotik ateratako koadro honetan (Lasarte eta Ereñotzu kenduta, horiek ez baitziren Parrokiaren eskumenekoak); hortaz, posible da Erregistro Zibileko datuekin guztiz bat ez etortzea.

EPEALDIA	HAZKUNDE GLOBALA	HAZKUNDE NATURALA	MIGRAZIO-MUGIMENDUA
1900-1920	1.362	666	696
1920-1940	1.173	1.118	55
1940-1960	4.808	2.138	2.675
EPEALDIAN, GUZTIRA	7.343	3.917	3.426

Biztanleriaren gorakada Hernaniko egitura ekonomikoa izandako aldaketengatik gertatu zen batez ere, batetik nekazaritzan eta bestetik industrian.

HERNANIKO NEKAZARITZAREN ETA ABELTZAINTZAREN BILAKAERA

1850. urtearen inguruan, Hernanin nekazaritza zen nagusi. Herritar aktiboen % 56 nekazariak ziren. Hala erakusten du 1857ko erroldarekin batera herritarrei egin zitzaien galdetegi osagarriak. Galdetegi horrek Hernaniko nekazaritzari eta abeltzaintzari buruzko datu zehatz-mehatzak eskaini zituen.



NEKAZARITZAKO PRODUKTU NAGUSIAK

GARIA	835 ANEGA
ARTOA	8.580 ANEGA
BABARRUNA	203 ANEGA
BABA	110 ANEGA
GAZTAINA	480 ANEGA
PATATA	4.300 ARROBA
SAGARDOA	8.604 ARROBA
ARBIA	1.120 ARROBA
SAGARRA	717 KARGA

Baliokidetzak aldatu egiten dira leku batetik bestera, baina gutxi gorabehera honela lira-teke:

1 ANEGA = 12 LAKARI = 45 KILOGRAMO = 55 LITRO

1 ARROBA = 11,500 KILOGRAMO

1 KARGA = 6 HEKTOLITRO

Garrantzi handikoak ziren garia, patata, sagarra eta sagardoa, gizakien elikaduraren oinarri baitziren. Abereak elikatzeke, berriz, artoa eta arbia erabiltzen ziren gehienbat.

Etxaldeek animaliak izaten zituzten. Motaren arabera banatuta, hauek ziren kopuruak:



Ardien eta behien azienda zen nagusi. Kopuruz, gutxiago ziren gurdi-abereak (zaldia, mandoa eta astoa); landa-lanetarako erabiltzen zituzten halakoak.

GANADUA

ABERE KOPURUA

BEHIAK	720
ZALDIAK	28
MANDOAK	30
ASTOAK	54
ARDIAK	960
TXERRIAK	450

BASOAREN ABERASTASUNA

Basogintzak ere garrantzi handia izan zuen garai hartan. Donostiak eta Hernanik dokumentu bat sinatu zuten 1417an, eta besteak beste hauxe hitzartu zuten bertan: «*auzoko egitea Urumeako barrutiak, mendiak, belardiak, urak eta eskubideak*» eta «*Urumeako mendiak bi kontzejuetarako amankomun bihurtzea*».

Inguru horretatik nahikoa egur eta landare-ikatz lortzen zuten burdinolak elikatzeke, baita esportatzeko ere, eta diru-iturri ederra izaten zen hori, Hernanirako.

Hurrengo koadroan, zenbait produkturen inportazioen eta esportazioen bolumena ikus dezakezue:

MENE BAT HERNANIREN HISTORIAN

1850 - 1950/60

IMPORTAZIOAK

GARIA

2.500 ANEGA

GARAGARRA

100 ANEGA

OLOA

50 ANEGA

ESPORTAZIOAK

ARTOA

2.200 ANEGA

SAGARDOA

40.000 KARGA

EGURRA eta
LANDARE-IKATZA

200.000 ARROBA

1857tik aurrera, aldaketa sakonak gertatu ziren nekazaritzan.

1. Behera egin zuen zerealen ekoizpenak (garia eta artoa). Gariak gorakada handia izan zuen 1900era arte, baina 1930etik aurrera ez zen ia inon lantzen. Artoaren ekoizpena ere asko jaitsi zen; ez gariarena bezain-beste, baina nabarmen hala ere.

2. Abeltzaintzak indar handia hartu zuen, bai behi-aziendak, bai gurdi-abereek (zaldi, asto, mando...). Ez, ordea, ardi-aziendak.



Gorakada horren ondorioz, lur gehiago hasi ziren erabiltzen abereentzako elikagaiak lantzeko (arbia, alpapa, hirusta, erremolatxa...).

Industriaren agerpenak ere izan zuen eraginik aldaketa horietan guztietan.

INDUSTRIAURREKO GARAIA HERNANIN

BURDINOLAK eta ERROTAK

Hernaniko manufaktura-tradizioaren erakusgarri nagusia burdinolak eta errotak izan ziren, XIV. mendetik aurrera.

Burdinolak IX. mendean sortu ziren Europan, baina Euskadin XIV. mendean hasi ziren erreka-bazterretan ugaritzen. Harritu egingo zarete batzuk, Hernanin garai batean burdinolak egon zirela irakurtzean, baina go-goan izan Urumea ibaian baina Ereñotzu eta Pikoagaraino joan zitekeela. Salgaiak ibaian garraiatzen ziren gehienbat, gabarra edo ontzi handietan. Eta Hernanik bazuen portua ere; izatez, Portu izeneko auzo bat bada Hernanin. Horrela, Donostiaren bidez, Hernanik harreman estua zuen itsas sektorearekin.

Urumeako bailara osoak eta Gipuzkoak oro har etekin handia atera zioten burdinolen jarduerari. Luis Miguel Díez de Salazar eta M^a Rosa Ayerbe adituek beren *"Ferrerías guipuzcoanas - Aspectos socio-económicos, laborales y fiscales (siglos XIV-XVI)"* liburuan jasotakoaren arabera, eskulanaren % 40-50 zegoen zuzenean edo zeharka burdingintzara bideratuta.

Ez gara gai honekin gehiago luzatuko, liburu asko eta asko idazteko adina material dagoelako, baina garrantzia izan zenez Hernaniko lanaren eta industriaren gainean, ikus dezagun zer burdinola egon ziren gure udalerrian, Nafarroako mugatik hasi eta Hernaniko Porturaino:

- Aparrain
- Pagoaga
- Pikoaga
- Urruzuno edo Olazar
- Olaberriaga edo Olaberri
- Huerratua (Ubarrato)
- Abillas
- Lasa
- Ereñotzu
- Fagollaga
- Epela
- Zeago edo Eziago (gerora
Biyak-Bat paper-Fabrika
egongo zen lekuan)
- Osinaga



XVIII. mendearen erdialdean, itsasontzigintzaren bilakaerarekin, behar berriak sortu zituen; itsasontziak finkatzeko aingurak egitekoa, besteak beste. Burdinola asko aritu ziren lehian, armadarako aingurak hornitzeko emakida nork eskuratuko, eta Hernanik lortu zuen esleipendun izatea. Hernaniko Udala, Josefa Gregoria de Beroiz eta José Ignacio Estradako dukea (Fagollagako, Pikoagako eta Ereñotzuko burdinolen jabeak, hurrenez hurren) elkartu egin ziren, eta 1750ean kontratu bat sinatu zuten Gorteararekin. Kontratu horren bidez, lau urterako konpromisoa hartu zuten, urtean 20.000 tona aingura egiteko, eta trukean kredituak eta pribilegioak jasoko zituzten, mendiak lehengaiak aprobetxatu ahal izateko.



Urtebeteren buruan, aipatutako burdinolak ari ziren jada aingura eta aingura-tzarrak hornitzeko eskaera guztiei erantzuten. Urumea ibaian barna eramaten zituzten, gabarratan, Santa Katalina porturaino, eta handik gero Donostiako kaira. Produktuak kalitate bikainekoak zirenez, asko Europako herrialdeetara ere esportatzen zituzten.

Handik urte batzuetara, arazoak sortzen hasi ziren. Arazoetan latzena Estatuak 1855ean ondasunak desamortizatzeko onartutako legea izan zen. Lege horren arabera, ondasun komunal guztiak saldu egin behar ziren: udalarenak, Estatua-renak, kleroarenak, ordena militarrenak, kofradienak, santutegienak... Salbuespen iz ziren pietate-eskolak eta San Joan Jainkoaren ospitaleak, irakaskuntzan eta osasungintzan aritzen zirenak, hurrenez hurren. Gauzak horrela, Hernaniko Udalak saldu egin behar izan zituen bere instalazioak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 1863ko urriaren 23koa).


Burdinola batzuek, burdingintza-lanak amaitutakoan, errota gisa jarraitu zuten:

- Pagoaga
- Pikoaga
- Huerratua
- Ereñotzu
- Epela
- Ezioga (gaur egun, Eziago)
- Osinaga

Berririk ere egin zen, eta batzuk lehendik zeuden:

- Karabel
- Franko
- Errota-berria (1418an bazebilen jada eta Hernanikoa omen zen artean. 1611tik aurrera, Urnietakoa zela ageri da).
- Beko-errota (1387an eraiki zuten -ordukoa da Lasarteri buruzko aipamenik zaharrena- eta 1888ra arte gutxienez martxan ibili zen. Tarte horretan guztian, Hernanikoa izan zen).

Pixkanaka, behera egiten joan ziren burdinolak, eta teknologia siderurgiko berrien etorrerarekin itxi egin zituzten azkenean. Hala gertatu zen, adibidez, Boluetako Santa Anako Labe Garalarekin (1848) eta Beasaingoarekin (1861).



MEATZEAK ETA HARROBIAK

XIX. mendearen erdialdean, meatzaritzak indar handia hartu zuen Hernanin, eta zuzenean edo zeharka jende askori eman zion lana. Ingeniari frantses batzuen etorrerarekin hasi zen inguruotan arlo hori pizten, 1833an: harrikatzeko meatzerik ba ote zen jakiteko asmoz etorri ziren, eta Fagollagako burdinolaren inguruko lurrak begiratzen ibili ziren.

Orduantxe hasi ziren meatzeak ustiatzen:

- San Emilio, Antziolan (1850).
- beste bat, Arrieta baserriaren ondoan (1857).
- Antrazita harrikatza erauzteko meatzea, Marluz-txikin (1859), eta
- La Ventura (1863), Jauregi baserriaren lurretan.

1900eko lehen hamarkadan, bost harrobi zeuden Hernanin, kareharria erauzteko:

- Mariluz
- Santa Barbara
- Epele-etxeberri
- Etxa-erreaga
- Bartolua-enea

Santa Barbarako harrobia oso aspaldi hasi ziren ustiatzen. Garbi erakusten dute hori parrokian eta udale-txean egindako obrei lotutako hainbat eta hainbat agirik.

Santa Barbaran erauzitako harria karea egiteko ere erabiltzen zuten. Horren erakusle da 1584ko martxoaren 4ko data duen agiria, non Juanes de Sarobe-k, karobi baten jabe zenak, baimena eskatu baitzion Jon López de Aguirre y Alcega lizentziadunari, bere lurrak gurdiaekin zeharkatu ahal izateko, Santa Barbarako harro-bian kareharria jaso zezan.

GARAI INDUSTRIALA HERNANIN

Jarduera industrialak XIX. mendearen lehen erdian izan zuen hasiera Hernanin.

Informazio gehiegi ez daukagun arren, gure ustez nabarmentzeko modukoa izan zen pospologintza; alde batetik, jarduera hori ez delako Hernanin oso ezaguna, eta, bestetik, gure udalerrian lekua hartzen hasi zen iraultza industrialaren aitzindaria izan zelako nolabait.

Pospoloo, supiztekoa, mistoa edo arrasta -hainbat modutara izendatzen da- bi alderditatik azter daiteke:

Kirtenaren arabera, buruari eusten dion zotzaren arabera, hiru pospolo mota bereiz ditzakegu:

1. Estearikoak: kotoizko hari prentsatuekin egiten dira, eta estearinaz biltzen (azido esteari-koaren eta glizerinaren nahasketaz).

2. Paperezkoak: Kraft paperezko zerrendekin egiten dira, parafinaz bilduta, sua errazago pizteko.

3. Zurezkoak: parafinaz bilduta egoten dira.

Pospoloaren buruaren arabera, bi pospolo mota bereiz ditzakegu:

1. Segurtasun-pospoloak. Ezaugarriak:

- * Fosforo zuriazen ordez, fosforo gorria erabiltzen da halakoak egiteko.
- * Errekuntza eragiten duten osagaiak bereizita egoten dira: pospoloaren burua antimonio sulfuroz eta potasio kloratoz egina egoten da; burua marruskatzeko erabiltzen den gainazala, berriz, kristal ehotuz eta fosforo gorritz.

2. Pospolo integralak: burua fosforo sesquisulfurozkoa izaten da, fosforo puruzkoa eta potasio kloratozkoa beharrean. Su har dezan, nahikoa izaten da lizpaper edo material zimurtsu baten aurka marruskatzea. Pospolo mota hori Saven eta Cahen kimikari frantsesek patentatu zuten, 1898an.

Estatuan, hasiera batean, debekatuta egon zen pospoloak saltzea, ez zirelako «*beharrezkotzat*» jotzen eta «*sukoia*» zirelako -batez ere, fosforo zuria erabiltzen zelako pospoloak egiteko; gero hasiko ziren fosforo zuriazen ordez gorria erabiltzen-. Estatuak 1826an eman zuen pospoloak ekoizteko eta saltzeko baimena, Estatuako Aldizkari Ofizialean (BOE) maiatzaren 27an argitaratutako errege-dekretu baten bidez.



Pospolo edo supiztekoak 1838an iritsi ziren inguruotara, Pascasio Lizarbe Ruiz-en eskutik.

Nafarra zen Pascasio Lizarbe Ruiz, Berbintzanan jaioa, eta Frantzia ikasi zituen pospoloen inguruan jakin beharrekoak. Hondarribian tailer bat zabaldu zuen, baina handik gutxira saldu egin zuen tailerra eta

Hernanira lekualdatu zen. Eta Hernanin, Carmen Elizondo emaztegiaren laguntza ekonomikoari esker, pospolo-tailer bat zabaldu zuen.

Pospologintza XIX. mendearen bigarren erdian hasi zen Hernanin indarra hartzen. Garai hartan, eta Hernaniko historian aurrenekoz, artisau-eran edo eskuz egin beharrean, Martín Múgica hernaniarrak asmatutako makina batzuen bidez hasi ziren pospoloak egiten.

1848an, hiru pospolo-fabrika zeuden Hernanin eta 30 pertsonari ematen zioten lana. 1862an, berriz, 35 pertsonari. Hauek ziren fabrikak:

- SAN JUAN, Agustindarren Komentuaren aurrean.
- DERREPENTE, egungo Lizeaga auzoan.
- EL PILAR, Agustín Paysac-ena, parrokia-elizaren atzean. (Urte horretan bertan, sute bat izan zen eta sei pertsona hil ziren bertan).

1850 - 1950/60

MEÑDE BAT HERNANIREN HISTORIAN

Urte hartatik aurrera, pospologintzak aurrerapauso handia eman zuen, bai ekoizpenean eta bai lanpostuen kopuruan. 1874an, 81 pertsona ari ziren lanean pospolo-fabriketan, eta 1891n 91.

Normalean, prozesu kimikoetan eta makineria manipulatzeko lanetan gizonak aritzen ziren; kutxatilak egiten, betetzen, paketatzen eta biltzen, berriz, emakumeak.



Pospoloen fabrikatzaile nagusiak eta marka ezagunenak hauek ziren:

- LA ORIENTAL, Manuel Cendoya-ren, Kanpoaldean.
- YURRITA y Cia-ren.
- LA NACIONAL, Tomás Jauregui-ren.
- LA MARIPOSA, Guevara eta Zaragüeta-ren, Kanpoaldean.
- Domingo Goenaga-ren, Kanpoaldean hori ere.

Hala ere, urte hartatik aurrera pospologintza indarra galtzen joan zen pixkanaka, eta XX. mendearen lehen urteetan desagertu egin ziren pospolo-fabrikak, batzuk bigarren gerra karlistaren ondorioengatik eta beste batzuk gremioari ezarritako baldintza gogorrenatik.



Hain zuzen ere, 1892an, Estatuak, diru gehiago biltzeko asmoz, Aurrekontu Lege bat onartu zuen, eta horren bidez pospologintza guztia bereganatu zuen:

«1892ko uztailaren 1etik aurrera, Estatuaren monopolioa izango da supizteko eta pospolo mota oro fabrikatzea eta saltzea.

Erregearen Gobernuak hitzarmen edo akordioak egin ahal izango ditu gremio modura biltzen diren fabrikatzaileekin, aipatutako monopolioaren aprobetxamendurako, urtean gutxienez 4 milioi pezetaren truke -gogoan izan 1892a zela-, Altxortegirako likidoak izango direnak, gehienez ere hamabost urterako.

Aurreko atalean adierazitako fabrikatzaileen gremioarekin hitzarmenik lortzen ez bada, Erregearen Gobernuak aukera izango du Altxortegiari berme nahikoa eskaintzen dion sozietate edo partikularri gehienez hamabost urtez alokatzeko, konkurtsoa egin ondoren, urtean gutxienez 4 milioi pezetaren truke, 1892ko martxoaren 31n legez martxan leudekeen fabriken eta industrien balioaren kalte-ordaina emanda aurrez».

1892ko abenduaren 22an, pospologileen gremioa sortu zen, eta abenduaren 28ko errege-dekretu baten bidez maila ofiziala eskuratu zuen. Hitzarmenaren arabera, pospologileen gremioak diru kopuru zehatz bat ordaindu beharko zion urtero Estatuari, ustiapen-eskubide gisa (250.000 pezeta gehiago izan ziren, azke-nean), eta betebeharrak ere bazituen:

«Ustiatzen hasi baino lehen, martxoaren 31n legez ezarrita zeuden eta gremioan sartu nahi izan ez zuten fabrikatzaileei dagokienetz, fabriken eta industrien balioaren kalte-ordaina ematea, edota gremioan sartu ondoren hitzarmenaren baldintzak onartzen ez dituztenen balioarena, legeak eta erregelamenduak horri buruz xedatutakoarekin bat, salbuespen izango delarik gremioak bere baitan adostutako kalte-ordain mota berezia, fabrikatzaile bakoitzak onarturikoa».

Neurri horiek guztiek eta geroko urteetan ezarri zirenek bi ondorio ekarri zituzten:

- Ekonomikoki sendoenak ziren industriak indartzea, eta
- Gainerako enpresak ixtea.

Hernanin izandako pospolo-fabriketan azkena, dakigunez behintzat, LA MARIPOSA izan zen. 1877ko martxoaren 9an, José eta Francisco Brunes anaiek erosi zieten fabrika Guevara eta Zaragüeta-ri, baina ez zuten lanbidean jardun.

1877ko abuztuaren 13tik 1880ko apirilaren 14ra bitartean, herriko garnizio-tropak kuarteleratzeko erabili zituzten fabrikaren instalazioak, eta Udalak hileko 100 pezeta ordaindu behar izan zizkien Brunes anaiei.

1917ko irailaren 17an, Udaleko alkate-presidenteak eskera hau egin zion Jabetzen eta Zergen Zuzendaritza Nagusiarri:

«Bere garaian La Mariposa pospolo-fabrika egondako eraikina lagatzea, 1909ko abuztuaren 30eko Errege Aginduaren bidez desjabetu egin zitzaiona jabea zenari (Jauregui-ren alargunari); hartara, herriko umezurtz- eta zahar-etxearen ondoan egotean, horra zabalduko lirakeke zerbitzuak, udalerrian ez baitago adinduak eta haurrak hartzeko egokia den beste lekurik».

1918ko ekainaren 22an, Hernaniko Udalari usufuktuan utzi zitzaion eraikina, eskatutako moduan erabili ahal izateko; umezurtz- eta zahar-etxea zabaltzeko, alegia.

1921eko abuztuaren 17an, Ongintzako Udalbatzak sorospen-etxea eraikitze aurrekontua eta proiektua bidali zizkion Udalari, eta sorospen-etxe hori garai bateko pospolo-fabrika kokatzeko proposamena egin zuen.

Hernaniko Udalbatzak honako erabaki hau hartu zuen 1961eko otsailaren 1ean, Tiburcio Aguirre Zumalacárregui zela alkate:

"Udalaren jabetzako 418,50 m²-ko lursaila PERMUTAN emango da, Izpizua-Elkano kaleen ertzean, pospolo-fabrika egon zen lekuan, mugakide dituela: Iparraldean... Elkano kalea; Ekialdean... Maria Sortzez Garbiaren Ikastetxeko espaloia; Hegoaldean... Ongintza Etxeko patioa eta irteerarik gabeko kalea, hegoaldetik lursail honetara eramaten duena; Mendebaldean... Guarderiako errepidea.

TRUKEAN JASOTZEKO Sor María Gorrochategui-ren jabetzako 408,90 m²-ko lursaila, mugakide dituela: Iparraldean... Elkano kalea; Ekialdean... María Cristina Gorrochategui-ren lursaila; Hegoaldean... Ongintzaren lursaila; Mendebaldean... Maria Sortzez Garbiaren Ikastetxeko sarbidea".

Onetsi egin zen baliokidetzatxostena, zeina aurkeztu baitzuten José Luis González Berenguer teknikariak (Zuzenbidean doktorea zen, Zientzia Politiko eta Ekonomikoetan doktorea, Merkataritzako peritua, Aireko Armadako Interbentzioko Kidegoko eta Gobernazioko Kidego Teknikoko ofiziala, Hernaniko Udaleko idazkari nagusia) eta Atanasio Lapazaran Zuloaga udal-aparejadoreak. Txosten horretan adierazi zuten lursail bakoitzak 390.000 pezetako balioa zuela.

BESTE JARDUERA BATZUK

Ehun urteko aldiaren (XIX. mendearen erdialdetik XX. mendearen erdialdera), industriarekin eta garraioarekin lotutako jarduerak industrial ugari izan ziren Hernanin, eta eragin handia izan zuten gure herriaren eguneroko bizimoduan. Ikus ditzagun jarduerak horietako batzuk.

GARRAIOBIDEAK

1858an

Joaquín Otamendi Echeverría-k Hernani eta Donostia arteko zalgurdi-zerbitzua inauguratu zuen.

1872an

José María Vidaurreta y Lasartek beste linea bat ezarri zuen eta handik denbora batera bi linea horiek bat egin zuten.



1863an

Madril-Irun burdinbidea jarri zen martxan, eta urtebete geroago, 1864an, Paris-Madril burdinbidea inauguratu zen. Une hartan, trenaren bi geraleku zeuzkan Hernanik (geltokia eta apeaderoa).

1903an

Donostia-Hernani burdinbidea inauguratu zen, herritarrek tranbia edo Tximist-gurdi deitzen zutena.



Donostiako Peñaflorida kaletik atera, eta Hernaniko Plaza Berriraino iristen zen. Geltoki terminala, hala ere, gaur egungo Urbietako kalean zegoen (Atsegindegitik gertu).

1950eko hamarkadaren lehen urteetan

GARAYAR konpainiako autobus-lineak jarri ziren Donostia eta Hernani artean, «*Aietekoak*» deiturikoak, baita AREIZAGA konpainiarenak ere, «*Astigarragakoak*».

Horrek tranbiaren gainbehera eragin zuen.

JARDUERA INDUSTRIALAK

Udal-artxiboan dauden erroldak erakusten digutenaren arabera, besteak beste honako industria hauek egon ziren Hernanin, alde batera utzita liburuxka honen beste atal batzuetan dagoeneko aipatu ditugunak -Erroldan aurrenekoz agertu ziren urtea jaso dugu hemen, nahiz eta geroko erroldetan ere agertu-:

1841eko errolda**TEILERIAK**

Añoa eta Martindegui-renak.

1860ko errolda**TXOKOLATE-ERROTAK (GOZOGILEAK)**

Benito Antonio Fernández, Kale Nagusiko 2.ean. Eskuz eragindako errota batekin egiten zuten txokolatea. Gerora, Martín Fernández-ek eskuratu zuen jabetza, eta ondoren, herentziaz, Julian Madina bihurtu zen jabe.

Luis Adarraga, Kale Nagusiko 29.ean. Bertan, eskuz eragindako errota baten bidez egiten zuten txokolatea.

Urte batzuk geroago, Kale Nagusiko 46.ean, asto batek mugiarazitako errota batean hasi ziren txokolatea egiten («*malakate-sistema*» delakoaz, horrela deitzen baitzaio abereen indarrez mugitzen denari). Errotaz baliatuz, kafea txigortu eta saldu ere egiten zuten, eta olioaren txikizkako salmenta ere bai.

Victoriano Orbegozo, Kale Nagusiko 9.ean.

José Manuel Iztueta, Portuko 3.ean.

IGELTSU, TEILA ETA ADREILU-FABRIKA

Manuel Liceaga-rena, Elizatxo auzoko 4.ean.

1870eko errolda**GALDATEGIA**

Gregorio Arceluz, Goicoechea y Cia-rena.

“LA URUMEA” IRIN-FABRIKA

Francisco Urrestarazu-rena.

1871ko errolda**“LA URUMEA” PAPER JARRAITUKO FABRIKA**

Bonifacio Guibert-ena, Urumea auzoan.

KARE-FABRIKA

Luis Manterola y Cia-rena, Kanpoaldeko auzoan.

TEILA ETA ADREILU-FABRIKA

Gerónimo Caldar-ena, Iparraldeko Kuarteleko 6.ean.

IGELTSU, TEILA eta ADREILU-FABRIKA

Manuel Liceaga-rena, Elizatxo auzoko 4.ean.

ZOPATARAKO FIDEOEN FABRIKA

Fernando Oteiza-rena, Urumea kaleko 28.ean kokatua.

1878ko errolda

"MARIALUS" KARE-FABRIKA

Eduardo Muguruza-rena, Lizeaga auzoan.

EPELE Y MARTINDEGUI TEILA eta ADREILU-FABRIKA

Francisco Beldarrain-ena, Ekialdeko Kuarteleko 32.ean kokatua.

TELLERI-GAÑA IGELTSU-FABRIKA

Ignacio Liceaga-rena, Lizeaga auzoko 4.ean kokatua.

"LAS AFUERAS" XABOI-FABRIKA

Domingo Goenaga-rena, gerora Domingo Goenagaren alargunarena, Kanpoaldean kokatua.

"LA PRIMITIVA" PAPER A EGITEKO ZUR-OREAREN FABRIKA

Sesé, Bandrés eta Echeverría-rena, Ekialdeko Kuarteleko 38.ean.

ZURRATZE-FABRIKA (ZURRATU GABEKO LARRUAK)

Francisco Goicoechea-rena, gerora Fermín Zuaznabar-ek eskuratu zuena, 1882ko erroldaren arabera, Kale Nagusiko 19.ean.

LA PERFECTA, Marticorena e Hijos-ena; hasieran, 64 langile zeuzkan. Kanpoaldeko 5.ean kokatua. 1889an brontzezko domina irabazi zuen Bartzelonako Erakusketan. Geroago, 1913an, Fernando Montes-ek erosi zuen, eta ondoren bere seme-alabei eman zien jabetzan. MONTES zurratze-fabrika deitzen dio jendeak.



IRIN-ERROTAK

Matea Gorrochategui-rena, Ekialdeko Kuarteleko 4.ean.

José Manuel Tellechea-rena, Ekialdeko Kuarteleko 40.ean.

Ignacio Maria Iraola-rena, Eguerdiko Kuarteleko 6.ean.

1882ko errolda**EGUR-DESTILATUEN PRODUKTU KIMIKOEN FABRIKA**

Lecumberri y Cia-rena, "ARITZARENAC", Ekialdeko Kuartelean, 1881ean sortua. 1886tik aurrera, sozietate bat osatu zuten Puig y Cia-rekin batera, ozpinak eta beste produktu batzuk ekoizteko.

"LA SOLEDAD" LAKA-ERROTA (ur bilduarena) bi harrikoa

Juan Sesé y Cia-rena, gerora Loinaz, Ubarrechena y Cia-rena eta LA URUMEA deitua, Arbiza-portun kokatua.

1894ko errolda**"LA NACIONAL" KARE-FABRIKA (bi labe jarraiturekin)**

Arbelaiz y Compañía-rena.

"FUNDICIONES DEL NORTE"

Pegasse Daniel-ena, 1888an Bekoerrotan sortua.

ADREILU ERREGOGORREN FABRIKA

Tomás Allaflor-ena, Errotaburun kokatua. 1897ko agiri batek erakusten duenez, Allaflor-ek eta Hostein-ek hainbat adreilu erregogor bidali zituzten Logroñora. Hernaniko fabrian egindako produktuei buruzko erakusketa bat antolatu baitzuten han.

XABOI ETA ESTEARINA-FABRIKA (kandelak eta xaboiak egiteko erabiltzen den azido bat da estearina), Ignacio Liceaga-rena.

Hernanin XIX. mendean zegoen jarduera industrialaren inguruko ibilbide hau bukatzeko, Enrique Goro-sabel-en artisauek-estiloko PILOTAGINTZA aipatu beharko genuke. 1889an, zilarrezko domina lortu zuen Bartzelonako Erakusketan.

1901eko errolda**"UBARROTO CHIQUI" LAKA-ERROTA (ur bildukoa) bi harri zituen**

José María Garín-ena, Ubarroton kokatua.

PATTAR LIKOREEN FABRIKA

Domingo Benthén-ena, Kanpoaldean kokatua.

1903ko errolda**"REMY" ALMIDOI-FABRIKA**

1902an Scte. Anne. Remy-k sortua.



KARE HIDRAULIKOAREN FABRIKA

1900. urtean sortua eta Ubarroto Txikin kokatua. Ricardo Figueredo y Cia-ren jabetzakoa zen.

1909ko errolda

ADREILU ERREGOGORREN FABRIKA

Hainbat gorabeheraren ondoren 1908an Alfredo Marqueze Iturralde-k esku-ratu zuena. Florida auzoan

zegoen kokatuta eta CERÁMICA DE HERNANI zuen izena.

1916an, José Aristegui Urtaza eta Florencio Achalandabaso Barrera-ren enpresa taldean sartu zen. Geroago, 1941ean, 51 langile zituela eta urtean 6.000 tona ekoizten zituela, beste izen bat hartu zuen: CERÁMICA DE HERNANI, ARISTEGUI y VIUDA DE ACHALANDABASO SL. Ortutik aurrera, CHAYVA izenez egin zen ezagun.

1989an, Japoniako Krosaki eta Mitsui taldeek erosi zituzten instalazioak eta geroztik AMR REFLECTARIOS SA deitzen da.

1914ko errolda

“MENDIA S.A. - PAPELERA DEL URUMEA” PAPER-FABRIKA,

Gregorio Mendiarena, Florida auzoan kokatua (Landareren aurrean), 1913an sortua. Urte batzuk geroago, bat egin zuen GUREOLA SArekin.

Urteetan zehar, aldatzen joan dira bai haren jabeak, bai langileen kopurua -500 langile izatera iritsi zen-, bai izen soziala ere: GUREOLA SCOTT SA izena hartu zuen, Scott Paper Company multinazional estatubatuarren akzioen % 50 erosi zituenean -geroago, % 100 eskuratuko zituen-.

1980tik aurrera, konpainiak aldatu egin zuen bere enpresa-politika; «*bazterreratu*» egin zuen Hernani, eta Espainiako zenbait enpresa bereganatzen joan zen, hala nola Doñinos (Salamanca), Sanceleko faktoria (Aranguren eta Arceniaga); une horretan, aldatu egin zuen izena eta SCOTT IBÉRICA SA hartu zuen, la planta de fabricación de pasta de papel de Miranda de Ebro (ENCE).

Hainbat urte geroago, Hernaniko planta ixteko plan bat aurkeztu zutenean, jabe berriak sartu ziren eta fabrikak aldatu egin zuen bere izena: CELULOSAS DE HERNANI bihurtu zen. Gaur egun, martxan jarraitzen du, COMINTER TISSU SL izenarekin, eta 30 bat pertsona ari dira bertan lanean.

1850 - 1950/60

MEÑDE BAT HERNANIREN HISTORIAN

"BILLAKBAT (BIYAK BAT)" PAPER-FABRIKA

Eziogako errota zaharrean kokatua.

"ROYALTA" GAILETA-FABRIKA

Barkilloetan espezializatua. Pastas finas para postres, rellenos y gaufrettes, Antziolan kokatua, Sociedad Royalta-rena. 1921ean, Cantabria y Royalta SA bihurtu zen.

1915eko errolda

PUNTUZKO EHUNEN FABRIKA

1914an sortua, Santiago Carrero SC-rena.



FABRICA DE TEJIDOS PUNTO DE LOS PIRINEOS

GRANDES TALLERES
DE CONFECCIÓN

ESPECIALIDAD EN ARTICULOS PARA SEÑORAS Y NIÑOS
EN PUNTO DE LANA Y SEDA



ARGIZARI-FABRIKA

1914an David Añibarro Arce-k sortua, Portu auzoko 1.an.

ONTZIEN SOZIETATEA

Sansinenea-rena.

1920ko errolda

PIANO, HARPA, ORGANO ETA HARMONIKA-FABRIKA

Aquilino Amezua y Compañía-rena, Arbizu-Portun.

“COLORES LILION” KOLORE-INDUSTRIA

Bestizan baserriaren atzealdean (tren-geltokitik gertu).

BERNIZEN ETA PINTUREN FABRIKA

Georget Filts-ena, Perkaiztegin.

METAGAILU-FABRIKA

Arbide y Cia SLrena.

“SAN MIGUEL” ZERAMIKA-FABRIKA

Francisco Ibañez Alonso-rena, 1918an sortua. Gerora, Francisco Sangra-k eskuratu zuen.

1921eko errolda

ARTILEZKO ETA ZETAZKO EHUNEN FABRIKA

Morencos eta Miranda-rena, Kanpoaldeko 17.ean.

TINA-FABRIKA

Ontzi mota guztiak egiten zituzten. 1920an sortua, Ignacio Aguirresarobe y Compañía-rena, Lasarte auzoan.

1922ko errolda

ALTZARI-FABRIKA (ZURGINDEGIA ETA EBANISTERIA)

1919an sortua, José Romero Erice-rena, Lizeaga auzoko 5.ean.

BRONTZE-GALDATEGIA

Gimeno y Cia-rena.

BUZTINOLA

Miguel García Cebrián-ena, Lasarte auzoan kokatua.

1925eko errolda

EDARI GASDUNEN FABRIKA

Marcelina Arcelus Barcaiztegui-rena.

LIMONADA ETA SELTZ URA EKOIZTEKO FABRIKA

Miguel Gorostazu-rena, Kale Nagusian. Gero, José Recondo-k eskuratu zuen.

LIXIBA-FABRIKA

Norberto Mirón Zabala-rena, Alfontso XIII.aren 59.ean.

1931ko errolda**LIXIBA-FABRIKA**

José María Tellería-rena, Perkaiztegin.

XX. MENDEAREN LEHEN ERDIKO BESTE ENPRESA BATZUK**"GUIPUZCOANA DE ZIKUÑAGA S.A." PAPER-FABRIKA**

Zikuñaga auzoan (1941. urtea).

"PAPELERA DEL NORTE" PAPER-FABRIKA

B. Armendariz y Cia-rena, Florida auzoan (1944. urtea).

"POLICLORO S.A."

(1947. urtea).

"ELECTROQUÍMICA DE HERNANI S.A."

Epela auzoan (1948. urtea).

"DANAK BAT S.A." PAPER-FABRIKA

(1950. urtea).

"TRASPACAR S.A."

(1952. urtea).

"PRODUCTOS ELECTROTÉCNICOS S.A." (PRODESA)

Florida 21.

"UNIÓN ESPAÑOLA DE ABRASIVOS"

Zikuñaga auzoa 14.

"ACEROS Y FUNDICIONES DEL NORTE, PEDRO ORBEGOZO y CIA"

Pedro Orbegozo Eizaguirre-rena, 1953an sortua.

ONDORIOA

Azterlan txiki honetan ondorioak ateratzeko modu bat izango litzateke langileek ehun urteko aldian sektorez sektore zer-nolako bilakaera izan duten ikustea:

LEHEN SEKTOREA:

Nekazaritza
Abeltzaintza
Basogintza
Meatzaritza

BIGARREN SEKTOREA:


Industria

HIRUGARREN SEKTOREA EDO ZERBITZUEN SEKTOREA:

Merkataritza: Egurra, olio, zeta eta kotoia
Garraioa
Ostalaritza
Behi eta txerri-aziendaren hileko azokak

	1860. URTEA		1962. URTEA (1)	
	PERTSONEN KOPURUA	%	PERTSONEN KOPURUA	%
LEHEN SEKTOREA	874	56.0	307	7.3
BIGARREN SEKTOREA	379	24.0	2.812	67.4
HIRUGARREN SEKTOREA	323	20.0	1.056	25.3
GUZTIRA	1.576	100.0	4.175	100.0

(1) PROSPEKZIO ZUZENeko sistemaren bidez lortua.



OHARRA

Bukatzeko, eta kontuan izanik agirietan jasota dauden moduan eman nahi izan ditugula kale eta auzoen izenak, pentsatzen dugu lagungarria izango dela denboran zehar nola deitu diren adieraztea, aintzat hartuta Hernani denbora batean sektoreka bereizita zegoela (Iparralde, Hegoalde, Ekialdea eta Mendebalde).

KANPOALDEKO auzoa

	EKIALDEKO KANPOALDEA	ATZIETA kalea
		JUAN DE URBIETA kalea
	MENDEBALEKO KANPOALDEA	EKAINAREN 2 kalea (NAFAR kalea)
		IZPIZUA kalea
ELIZATXO auzoa		LIZEAGA auzoa, ELIZATXO auzoa
URUMEA auzoa		OSINAGA (Ibaiari jarraituz)
EKIALDEKO KUARTELA		KARABEL auzoa/ KARABEL, Z IKUÑAGA, MARTINDEGI
IPARRALDEKO KUARTELA		ANTZIOLA, GALARRETA
EGUERDIKO KUARTELA		OSINAGA, LASTAOLA, PAGOAGA, PIKOAGA
ALFONTSO XIII.aren kalea		Kale NAGUSIA
ARBIZA - PORTU		FLORIDA auzoa (Ergobi aldera)
UBARROTO		EKIALDEKO KUARTELA (Martindegi aldera)

Creemos conveniente empezar este trabajo contextualizando la evolución de Hernani, entre 1850 hasta 1950/1960, en tres apartados:

DEMOGRÁFICO
AGRICULTURA - GANADERÍA
INDUSTRIA

EVOLUCIÓN DEMOGRÁFICA DE HERNANI

La primera información que se tiene constancia data del censo del siglo XVI publicado en la Imprenta Real, en la que se especifica que Hernani contaba con 27 "*fuegos*", sin tener en cuenta a los "*hidalgos*".

El "*fuego*" que se identificaba como casa u hogar equivaldría a 5,5 vecinos "*pecheros*" (equivalente a plebeyo), y estos a su vez equivaldría a 5 habitantes. Por lo que se deduce que Hernani tendría unos 740 habitantes *pecheros*, aproximadamente el 56% de la población. El 44% restante correspondiente a los *hidalgos* supondrían unos 585 habitantes. Es decir que en total la población de Hernani hacia al año 1550 será de 1325 habitantes.

(No es tema de este trabajo el hablar de Plebeyos e Hidalgos, hay mucha literatura y debates al respecto, pero como partida diremos que en Vizcaya, según el Fuero Nuevo de 1526, se consideraba hidalgo a todas las personas naturales de dicho territorio, lo mismo que pasó para las personas naturales de Guipúzcoa a partir del año 1610).

CENSO (AÑOS)	HABITANTES
1857	3.641
1860	3.558
1877	3.539
1887	3.531
1897	3.641
1900	3.672
1910	4.326
1920	5.405
1930	6.282
1940	7.093
1950	8.577
1960	13.080

Estos y otros datos demográficos que se conocen sin embargo ofrecen algunas dudas en cuanto a su credibilidad.

La evolución demográfica de Hernani se puede conocer con precisión a partir de los Censos Oficiales que se llevan a cabo desde 1857.

Como se puede apreciar el crecimiento de la población ha tenido procesos diversos, pero podríamos distinguir tres fases:

Desde 1857 hasta 1900

El crecimiento es prácticamente nulo. Entre otros factores cabrían destacar la Guerra Carlista (1869-1876); incluir en el censo de 1860 a los habitantes de algunos caseríos que pertenecía a Donostia; incluir en el censo de 1887 a unas 300 personas que figuraban como transeúntes.

La movilidad de soldados como consecuencia de la guerra de Cuba, etc.

Desde 1900 hasta 1920

Crecimiento moderado en entre 1900 y 1910 y más importante en el segundo decenio.

Desde 1920 hasta 1940

Se aprecia un crecimiento constante y mas bien moderado, aunque influenciado por dos causas importantes: La Crisis Económica de los años 30 que afectó a todos los países y La Guerra del 36.

Desde 1940 a 1950

El incremento supone 1484 habitantes es decir un 21% de crecimiento.

Desde 1950 a 1960

